



UDALAREN WHATSAPP ZERBITZUA ERABILTZEKO ARAUDIA

- Arratzua-Ubarrundiako Udaleko Kultura eta Kirol Sailaren banaketa-zerrendan alta eta zerbitzua doakoak dira.
- Ezinbestekoa da aplikazioa instalatuta izatea, Udaleko Kultura eta Kirol Sailak bidalitako berriak komunikabide honen bidez jaso ahal izateko.
- Kultura eta Kirol Saila izango da kirolari, kultura-jardueri, haurrentzako jardueri eta abarri buruzko informazioa emateko sortu den zerbitzuaren administratzailea.
- Udaleko kultura eta kirol zerbitzuaren informazioa jaso nahi duten herritar guztientzat da.
- WhatsAppen udalak emandako mezuak baino ez dira jasoko.
- Informazio-mezuak hedapen-zerrenden bidez bidaliko dira, eta bidalitako mezuetan ez dira inoiz agertuko hirugarren pertsonen datuak, ezta hirugarrenen telefono-zenbakiak ere.
- Udalaren kontaktua ezin da WhatsApp-eko taldeetan sartu.
- Erabiltzaileek EZIN dute mezurik bidali WhatsApp zerbitzura. Noranzko bakarreko informazio-zerbitzua da.
- Araudia zerbitzuaren berrikuntza teknologikora eta funtzionamenduak eskatzen dituen inguruabarretara egokitu ahal izango da. Nolanahi ere, arau-aldaketak erabiltzaileei jakinaraziko zaizkie.
- Emandako datuetan edozein aldaketa egiteko konpromisoa hartzen duzu, bereziki, eskatutako komunikazio elektronikoaren harreraren eragina duen telefono mugikorraren zenbakia aldatuz gero.